

2017. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

I- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Tokiko Erakunde honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota

2. artikulua

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da

II- ZERGAGAIA

3. artikulua.-

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo haren aprobetxamendu bereziak eratzten du zergagaia, baita erabilera publikoari lotutako beste ondasun batzuk ere

III- SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.-

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera

2.- Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerek modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien aprobetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro bat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzekoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak

5. artikulua.-

Tasen ordainketa lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek egingo dute, eta horien ezean, aprobetxamenduaren onuradun direnek

IV- SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

6. artikulua.-

Ez daukate tasa ordaindu beharrik:

Estatuak, Autonomia Erkidegoek eta Toki Entitateek, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen aprobetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalaren zer ikusia duten guztietan.

Onura publikoaren deklarazioa duten fundazioek eta elkarteek, eta interes orokorrerko helburuak dituzten gainontzeko erakundeek, baldin eta Eusko Jaurlaritzaren edo Urretxuko Udalaren Erregistroan inskribatuta badaude, erabilera pribatibo edo udal jabariaren aprobetxamendu berezia xede sozialari lotutako aprobetxamenduetan ematen denean.

Artikulu honetan xedatzen ez dena, salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V- OINARRI EZARGARRIA

7. artikulua.-

Oinarri ezargarria udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera

VI- KUOTA

8. artikulua.-

1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera

2.- Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa aldez aurretik ordaindu

Kalteak konponezinak badira, udalak kalte-ordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltetutako ondasunen zenbatekoarena.

Entitate Lokalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalte-ordainak edo diru-itzulketak.

VII- SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. artikulua.-

1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; jarduketa ez da egingo edo espedientea ez da izapidetuko dagokion ordainketa egiten ez bada

2.- Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo



aprobetxamendu berezia hasi edo uzten denean, ordea, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinean ezarritakoari jarraituz

3.- Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio

VIII- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

10. artikulua

Entitate Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

Udal lizentzia edo baimena behar da elementuen instalaziorako, baita ere hasiera batean emandakoen aldaketa, berrikuntza, haunditu edo txikitzeko; emanda bezala ulertuko da beti ere ordenantza honetan araututako tasak ordainduta badaude, eta hori egin bitartean ezingo zaio hasiera eman erabilerari edo aprobetxamenduari.

Tasa ez ordaintzeak automatikoki ekarriko du lizentzia edo baimena atzera botatzea.

IX- TASEN KUDEAKETA

11. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da

X- AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere eranskina ondoren aipatzen den egunean onartu zen behin betiko, eta 2017ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

XI- ERANSKINA

Onarpena: 2016ko urriaren 27a

A epigrafea: Hesiak, edukiontziak, garabiask, aldamioak, eskorrak, astoak eta beste batzuk.

- Metro lineal edo zatiko, egunekoa:	1,60 €
- Metro karratuko, hilekoa	20,75 €
-Metro karratuko hiruhilekoa	25,90 €
- Metro karratuko, urteko	41,40 €

Tarifa aplikatzeko arauak:

a)Epigrafe honetan aipatutako obrak, justifikatu gabe, bi hilabetetik gora etenda geratzen direnean, tarifa hau aplikatzerakoan sortzen diren zenbatekoek %100eko errenergua izango dute hirugarren hilabetetik aurrera, eta obrak amaitutakoan aprobetxamenduak jarraitzen badu, %200eko errenergua aplikatuko zaie.

b)Fatxadak txukuntzeko jarri behar diren hesi eta aldamierei dagozkien tarifak %100 murriztuko dira, hain zuzen ere honako hauek: fatxadak margotzea eta horretarako behar diren aurre-lanak, zarpiatzea, lixatzea, e.a...

c) Igoailuen instalazioa egiteko edo igogailuak indarrean dagoen araudiari (bai teknikoa bai irisgarritasunari buruzkoa) egokitzeko jarri behar diren hesi eta aldamierei dagozkien tarifak %100 murriztuko dira, beti ere, eraikita dauden eraikuntzak baldin badira.

B epigrafea: Lubakiak edo zangak egitea.

-Metro karratuko edo zatiko, egunean:	4,90 €
---------------------------------------	--------

C epigrafea: Postuak, barrakak, salmenta etxolak, ikuskizunak eta antzekoak

1.- Taberna, kafetegi eta antzekoak.

Metro lineal edo metro zatiko, egunean:	1,18 €
---	--------

2.- Txurrerriak, Txokolategiak eta ore frijituko mahaiak.

Metro lineal edo metro zatiko, egunean:	1,18 €
---	--------

3.- Pastelak, gozokiak, gozoak, fruitu lehorrak, patata frijituak, bisuteria, jostailuak, liburuak etab. saltzeko txosnak.

Metro lineal edo metro zatiko, egunean:	3,55 €
---	--------

4.- Tiro, txirringil eta bestelako jokoetako txosnak.

Metro karratuko edo metro zatiko, egunean:	2,31 €
--	--------

5.- Tonbolak, zozketak, salmenta arinak eta antzekoak.

Metro karratuko edo metro zatiko, egunean:	2,80 €
--	--------

6.- Mugimenduzko edozein aparailu mota.

Metro karratuko edo metro zatiko, egunean:	1,18 €
--	--------

7.- Autotxoke pistak.

Metro karratuko edo metro zatiko, egunean:	0,48 €
--	--------

8.- Ikuskizun eta antzerkiak.

Metro karratuko edo metro zatiko, egunean:	0,32 €
--	--------



9.- Zirkoak.

Metro karratuko edo metro zatiko, egunean: 2,94 €

10.- Santa Lutzitako feria, kaleko salmenta postuak:

Metroko edo zatiko, egunean: 19,25 €

Postua ibilgailuarekin: eguneko 76,50 €

11.- Jai Nagusiak, kalez kaleko salmenta postuak.

Metro linealeko edo zatiko, eguneko: 15,00 €

Postua ibilgailuarekin, eguneko: 76,50 €

12.- Mineralogia Feria, feriako postuak:

Metro linealeko edo zatiko, eguneko: 45,00 €

Tarifa aplikatzeko arauak.

Feria tokietako lur sailak esleitzeko enkante sistema erabiliko balitz, Udalak kasu bakoitzean erabakitzen dituen oinarri eta baldintzen arabera egingo da enkantea.

Eskualdeko artisau eta ekoizleen salmenta postuak salbuetsita egongo dira.

Kaleko salmenta postua udal interesa duten talde kulturalak, sozialek eta kiroletakoek eta ikastetxeek beraien jardueraren finantziatorako jartzen dutenean salbuetsita daude.

D epigrafea: Udal azoka eta azoka txikien zerbitzuak.

Bertako produktuen salmenta: metro karratuko eta eguneko: 0,22 €

Postuak: metro karratu eta eguneko: 0,60 €

Argindarraren hartunea (urteko tarifa): 5,25 €

Herriko baserriak izanik, baserriko produktuak saltzen dituzten salmenta postuak tasa ordaintzetik salbuetsita geratzen dira.

Tarifak aplikatzeko arauak.

Gaur egun modu iraunkorrean okupatuta dauden postuak errespetatu egingo dira. Libre daudenak eskatu egingo dira, Alkatzari zuzendutako idatzi bidez. Horiei erantzuna emango zaie, beti ere urteko baimenaren bitartez ezarritako tasak ordaintzeko baldintzarekin.

Kobranta hiru hilabetero egingo da.

E epigrafea: Udal bide publikoetako lurzorua, hegala eta lurpearen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia

a) Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen kasuan:

“Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurzorua, zorupearen edo hegala bakarreko erabileragatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen udal ordenantza fiskala” izeneko dokumentua ikusi.

b) beste kasu guztietan:

1.- Mahaiak, mahaitxoak, aulkiak, parasolak edo antzekoak.

Instalatutako mahaiko eta 4 aulki, urtean: 81,00 €

F epigrafea: Bide publikoetako kioskoak.

Bide publikoan jartzen diren kioskoak, honako hauek saltzeko:

1.- Egunkariak, aldizkariak, ipuinak, liburuak eta antzekoak

Kiosko bakoitzeko, urteko: 160,00 €

G epigrafea: Espaloi pasabideak edo ibilgailuen sarrera, ibiak eta gune publikoaren erretserba

a) Ibilgaluen sarrera edo pasabidea espaloitik edo bide publikotik:

a.1. Erabilera partikularreko garajeak:

1 tarifa.- Baimendutako ibia edo gune publikoaren erretserba dutenek:

- Ibilgailu 1 30,00€/urteko
- 2 ibilgailu 56,00€/urteko
- 3 ibilgailu 72,00€/urteko
- 4 tik 10 150,00€/urteko
- 11 ibilgailutik gora 12€ plaza eta urteko

2 tarifa.- Ibi iraunkorra ez dutenek:

- Ibilgailu 1 15,00 €/urteko
- 2 ibilgailu 28,00 €/urteko
- 3 ibilgailu 46,00 €/urteko
- 4 tik 10 90,00 €/urteko
- 11 ibilgailutik gora 11 € plaza eta urteko

Lehen azaldutakoaz gain, sarreraren zabalerak dituen metro lineal edo zatien kopurua bider 6 €/urtean eginda, horren emaitzaren zenbatekoa ordainduko dute.

a.2 Merkatal edo industria erabilera duten garajeak:

Ibia dutenek 57,00 €/urteko

Ibi gabekoek 45,00 €/urteko

(metro lineala edo zatia/urteko, gutxienez 4 metro)

a.3 Nekazal erabilera duten garajeak:

Ibia dutenek 19,00 €/urteko

(metro lineala edo zatia/urteko)

Ibi gisa ulertzen da ibilgailuen sarrera lokaletara eta etxebizitzetara errazteko erretserbatzen den gunea, ibilgailuak uzteko eta aparkatzeko debekuekin.



b) Espazio erretserbak

- 1.- Erretserbak hartzen duen errepideko metro lineal bakoitzeko edo zatiko, Urtean 13,00 €
- 2.- Noizbehinkako beharretarako espazio erretserba, (ml bakoitzeko, eguneko) 1,60 €

Espazio erretserbatzat hartzen da bide publikoan espazio erretserba egitea, ibilgailuak aparkatzeko debekuarekin, pasabideaz apartekoa.

Tarifa aplikatzeko arauak.

a) Espaloi-tako edo bide publiko-tako pasabideen zabalera beheratutako espaloi-ertzaren metro linealek emango dute, beheragunea baldin badago. Espaloi-ertza ez badago beheratuta, ezta kenduta ere, neurria zabalera guztia izango da, hau da, kasu bakoitzean lokalean edo orubean sartzeko zuloaren luzera erabilgarri osoa.

b) Aparkalekuen instalazio, kontserbazio, berritzea, pasabideak kentzea eta erretserba, baita horien seinalizazioa ere, eskatzaileen kontura izango da.